

Jarduera

EGILEA:	Ama Guadalupekoa Ikastetxea	
HERRIALDEA:	Euskal Herria	
IZENBURUA:	Margolanak natur baliabideak erabiliz	
IKASLEEN ADINA:	6-14	urte
GAIAK:	Natur Zientziak, Artea	
IRAUPENA:	90	minutu (30minutuko 3 saio)

Helburuak:

- Garaiko produktuak ezagutu.
- Naturako baliabideak erabiliz tinteak eta koloreak lortu.
- Teknika ezberdinak erabili margo lanak egiten ikasteko.

Jarduerak:

Denboraldia	Jardueraren deskribapena
	<u>Frogak (etxean prestatutakoak):</u> Tailerra aurrera eramateko, lehendabizi produktu ezberdinekin frogak egin behar dira. Horretarako garaiko produktu ezberdinak hartu eta egosi egin behar dira tinta lortu ahal izateko.
1. saioa	<u>Aurkezpena:</u> Erabilitako materialak erakutsi eta prozesu guztia aurrera eraman: <ol style="list-style-type: none"> 1. Mahai gainean mahai-zapi jarri eta ikasle bakoitzari bere marrakia eta bere pintzela ipini. Horrela gelara sartzerakoan bazkaltzeko mahai antzeko bat ikusiko dute. 2. Produktuak uretan egosi. 3. Nahasketak, kristalezko potoetan egin. 4. Pintzelekin frogak egin eta usain ezberdinekin jolastu.
2. - 3. saioak	<u>Margolanak egin:</u> Mantalak margotu, kolore ezberdinekin frogatu eta lehortzerakoan emaitza ikusi.



Materialak eta ekipamenduak:

- Jaki eta produktu ezberdinak:
 - Erremolatxa: kolore morea lortzeko.
 - Txipiroi tinta: beltza kolorea lortzeko.
 - Azafraia: kolore horia edo laranja lortzeko (intentsitatea kantitatearekin aldatzen da).
 - Piperrautsa: kolore gorria lortzeko.
 - Menta: kolore berdea lortzeko (kolore argia ateratzen da).
 - Kafea: kolore marroia lortzeko
- Ura egosteko behar diren tresnak
- Marrazkiak (ikasleek eginak izan daitezke edo irakasleak emandakoak).
- Pintzelak

Irakaskuntza-tresnak:

Gaiarekin hasi aurretik oleoak eta margoak nola egiten dira ikusi daiteke, interneten lortutako bideo eta testuekin.

Tailerra oso esperimentalak da, beraz erabilitako tresna gehienak tintak lortzeko produktuak dira.

Eztabaidarako galderak:

- Nondik ateratzen dira koloreak?
- Beharrezko da, elikagaiak margotzea bere benetako itxura estaltzeko? (adibidez, produktu askoren kolore gorria, kukurutxetik dator...

